

IPARRALDEKO ERDERAKADAK*Erderakadak*

"Hunen bitartez, hunekin
eta *bunetan*"

*Nundik artuta**Euskal-itx jatorrak*

"Hunen bitartez, hunekin
eta *hunengan*"

Au, ziñez, ez da erderakada, euskal-itx bat gaizki erabilia baizik, ongi dakizutenez, euskeraz egiten dugun izen-jokua (deklinazioa) berezia da, ta atzizki batzuen bidez, ongi bereizten ditugu izaki zentzungabeak zentzundunengandik. Esate baterako: (edonun esaten danez) *Etxean*, etxe *bunetan* (izaki zentzungabeak); baña Gizonagan, gizon *bunengan* (izaki zentzundunaz).

Esandako itzak Mezatan esaten dira "Gure Aita" erran aurretik; eta naiz Meza-emalleak naiz Meza-entzuleok, siñisten dugulako, ba-dakigu oparian, sagaratzea egin baño lenago, "ogia" dagoela, baña bein sagaratu ezkerro, an ogirik eztagoela, Jesukristo bera baño. Beraz, itx oiek esaten diranean, eztago an *zerrik*, an dagoena *nor* da, zentzunduna, ta orrengatik "hunengan" esan bear-izango litzake. *Hunetan* esatean, ura zentzungabekoa bezela artzen da, ta ori ez dator ongi siñismenaz. Egoaldean badakit ongi esaten dutela.

Atundu duten Liturjia berrian, "Gure Aita" otoitzean, ene us-tez, beste iru gauza dagoz gaizki jarriak. Baña oiei buruz, lan ortan ari-izan dan Batzorde'aren lendakari jaunari ager-erazi diot

nire iritzia. Alaz ere, otoi orren era berrian, gauza on bat egin dute: Mendeetan barna, egoaldean, "Aita gurea" esan dute bazter guzietan, euskeraren joskeraren aurka utz aundi bat egiten; eta orain, ori zentzunez zuzendu da, iparraldean bezela "Gure aita" jartzen.

Parantzeraz egindako era berrian ere, "Notre Père" otoiitzean, ba-dago, ene iritziz, ongi esana eztan beste gauza bat; eta lengo eraz erabiltzen zana askoz egokiagoa zala deritzait.

Guzi ortatik auxe atera dezakegu: alde ta toki guzietan, ortaz bederen, erriak, irakasten diotena jarraitzen du, zintzo ta menmen egíñez, diñoena ongi al gaizki ote dagoen begiratu gabe. Ongi irakasten badiote, ongi erranen du, ta, orobat, gaizki irakasten badiote, gaizki ere esango du esatekoa. Orrengatik, ezin onar dezakegu lege bat bezela erriak esaten eta erabiltzen duena, batzuen batzuek nai duten bezela.

Egin dezagun otoi
Eliza'rentzat
Egizu otoi gu
pekatorosentzat

Parantzeratik
id.

Egin dezagun otoi
Eliza'ren alde
Egizu otoi gu
pekatorosen alde

Au bai, au erderakada da, parantzerazko "pour" itzaren zentzun bateaz egíña. Nik baño obeto dakizutenez, "pour" itz ori bi zentzun auetan erabiltzen da: Bat, "causal", esate baterako "Je m'ai battu *pour* la patrie", ots, "*à cause* de la patrie" edo "*en faveur* de la patrie"; ta bestea, "destinatif", esate baterako "J'ai acheté ce livre *pour* toi", ots, "*pour* te le donner".

Lenengoa, euskeraz, "-gatik" atzizkiaz egiten dugu: "Nik guda egin dut aberriagatik" edo "aberriaren alde"; eta bigarrena, "-ntzat" atzizkiaz: Nik liburu au erosi dut zuretzat (*zurentzat*). Eta bigarren atzizki orrek zentzun ori dauka bakarrik eta ezin erabilli diteke besteaz.

Ba-dakit Lhande iztegian, beste zentzun bat aipatzen dala: "1^o suff. verb.: "pour que, afin que". "Ikhus dezantzat, pour qu'il voie". Beste batzuek ere zentzun ortarako erabili dute orrela, ta, gaizki gogoratzen ezpadut, Arana-Goiri'k ere; baña nire ustez ori eztago ongi; ta esandako adizkera ortan "Ikus dezan" bakarrik jarri ezkeru, aski da "pour qu'il voie" zentzuna adierazteko.

-*KIN* atzizkia = Avec (parantzeraz) = Con (españeraz)

Ene iduriko, alde guzietan, naiz iparraldean, naiz egoaldean, gaizki erabiltzen da atzizki au; bearbada, "avec" edo "con" bi itz oien zentzunak adierazteko xedeaz.

-*KIN* atzizkiaren zentzun berezia, *laguntza* edo *batzekoa* da, baña ez *bidezkoa*. Esate baterako:

Nire *aitarekin* joan naiz; one *kin* etorri naiz.

Baña au ezin esan diteke: *Makillarekin* jo dut txarurra. Zentzun ori *Z* beste atzizkiaz adierazi bear dugu: *Makillaz* jo dut txakurra.

Lhande'k onela diño: "1^o suff. unitif. *Enekin*, avec moi; -2^o indique le moyen. *Makbilarekin* jo du, il l'a frappé de son bâton; -3^o marque une circonstance de temps. *Jitearekin*, en venant. *Igandearekin*, en dimanche...".

Nire ustez, bigarren eta irugarren zentzun oiek adierazteko, -*kin* atzizkia erabiltzea okerra da.

ZERTAKO

Parantzeratik

ZERGATIK

Au ere beste erderakada bat da, aurrekoaren antzekoa.

Zertako, nire ustez, *Zertarako*'ren laburpena da, ta bere zentzun berezia -*NTZAT* bezelakoa da, baña zentzungabeko izakiai buruz erabiltzeko.

Lhande'ren iztegian onela irakurri diteke: "ZERENDAKO N. (H.) pourquoi?, pour quel motif?, pour quel usage?. - SYN: ZERTAKO? ZERGATIK, ZERENTZAT" - "ZERTARAKO C. (A.) à quoi bon?".

Ene iduriko, ZERTAKO ta ZERGATIK ez dira berdin; oietan bi zentzun bereziak dagozelako.

"Berbo dibinoa" (Angelus)	españeratik (Verbo divino)	"Jainkoa'ren Itza"
---------------------------	-------------------------------	--------------------

"Baña <i>geldituz</i> birjiña" (Angelus)		"Baña <i>geratuz</i> birjiña"
--	--	-------------------------------

Au ere ez da erderakada; baña, ene ustez, or, "gelditu" aditzaren orde, "geratu" erabili bear-izango litzake. Nire iduriko, *geratu* rena, parantzarako "arrêter" bezelakoa. Ba-dakit bi aditz oiek nastuta erabiltzen dirala, baña uste dut ona izango litzakela zentzun oietarako bi itz oiek ondo bereiztu ta tinkotzea.

"Zer poztasuna!"	Parantzera edo españeratik <i>Quel</i> content!, edo <i>Qué</i> contento!	Au poztasuna!, edo Ori poztasuna!, edo Ura poztasuna!
------------------	---	---

"Orroitu, garraitu, erroitu..."		"Oroitu, garraitu, erotu..."
---------------------------------	--	------------------------------

Itz auetan egiten dan *rr* gogor orrena ezta erderakada; baña zergatik gogortu da, bigun izan bear dan *r* ori? Onengatik edo, nire ustez:

Itz oiek onela ere idatzita izan dira: Orhoitu, garhaitu, erhotu...; ta *h* ori *r*ren bigarren soñu gogorra adierazteko izan da or,

beste itz batzuetan bezela; bearbada asieran etzan sartu *b* ori ortarako, ez eta Or-hoitu, gar-haitu, er-hotu, *b* orren sasi soñua emateko ere. Zertarako sartu zan, bada?; zalla da niretzat erantzutea. Sartu ote zan, esate baterako, "urhats" itza bezela idazteko? Itz onen *r* ori, bai, soñu gogorrekoa da, ta onela idatzi dezakegu argiago: "urrats". Ongi gogoratzen dut, bein *Herria*'n emandako idazlan batean bi era auetan agertzen zala itz ori: "urrats" eta "urhats"; eta bein, Paris'eko eliza batean euskal-apaiz jaun bati "ur-bats" entzun geniola, *b* ori oguzirik. Lhande'ren iztegian *b* beti oguzi bear dala esaten da, ta bertan orrela ikasita edo, or ikus dezakegu zergatik oguzten dan batzuetan *b* ori. Ene iritziz, esandako itzak eta orrelako beste batzuk ere, *r* bigunaz oguzi ta idatzi bear dira; orrela, ortan batasuna egiña izango genuke. Beste aldetik, ene ustez, pizkanaka-pizkanaka, *H* guziak kendu bear-izango genuke, euskera errazagoa egiteko; erraz egin liteke ori ta oso egoki ta onuratsua izango litzake, izkuntzarentzat eta batasunerako.

Orain iparraldean erabiltzen diran erderakada batzuk (itzak) ipiñiko ditut, geyenak "Herria" ta *Otoizlar*'tik artuta; nungo erderatik artuta dagozen, eta oien ordez erabil ditezken euskal-itz jatorrak, naiz eta auen artean, gutxienak, itz berri batzuk agertu. Beste asko atera litezke oindiño, baña aski dira, euskeran erdera nola sartu dan ikusteko. Ta gausa nabaria ere agertzen da ori: itz geyen oiek "españeratik" artuta bide dagoz, ez "parantzeratik"; zergatik ori?;

<i>Abendoa</i>	Parantzeratik	(avent)	Lotazil (Laburdi'ko itza)
<i>Abuztua</i>	Españeratik	(agosto)	Dagonil
<i>Adreza</i>	Parantzeratik	(adresse)	Zuzenbidea
<i>Airos</i>	Españeratik	(airoso)	Zalui, lirain, txairo
<i>Alegera</i>	"	(alegre)	Alai, alaitsu, arrai (Laburdi'n)
<i>Altxatu</i>	"	(alzar)	Jaso, goratu, upatu
<i>Aparte</i>	"	(aparte)	Berezi, bazterki
<i>Apirilla</i>	Parantzeratik?	(avril)	Jonaila
	Españeratik?	(abril)	

<i>Arraza</i>	Españeratik?	(raza)	Enda, abenda (itz berria?)
<i>Arrazotnamendu</i>	"	(razonamiento)	
	(Lhande izt.)	(rom. arrasoua)	Gogaketa, bururakizun
<i>Atrebina</i>	Españeratik	(atrevido)	Ausart (Lhande'ren izt.)
	(Lhande izt. <i>aireverse</i>)	(Cf. esp.)	(Cf. rom. <i>ausar</i>), azarri, bipil)
<i>Bakantza</i>	Parantzeratik	(vacance)	Oportaldia, oportaroa
<i>Balios</i>	Españeratik	(valioso)	Aldiñeko, jasoko
<i>Bandera</i>	"	(bandera)	Ikurña (au itz berria da, baña ongi egiña)
<i>Benedikatu</i>	"	(benedicir)	Onctsi
<i>Bertutea</i>	Parantzeratik	(vertu)	Onbidea
	(Lhande: (Du latin virtute)		
<i>Besta, pesta</i>	Españeratik	(fiesta)	Jai
<i>Bestitu</i>	"	(vestir)	Jantzi
<i>Bistan da</i>	"	(está a la vista)	Agirian dago
			Agiri-agirian dago
			Begien aurrean dago
<i>Bista</i>	"	(vista)	Ikusmena, ikuspidea
<i>Bulego</i>	Parantzeratik	(bureau)	Landola, idazkola
<i>Debaldean</i>	Españeratik	(en balde)	Alperrik
<i>Denbora</i>	"	(tiempo)	Aidi, eguraldi
<i>Deputatu</i>	"	(diputado)	Aldun
<i>Doblatu</i>	"	(doblar)	Bikundu, tolestu, malgutu
<i>Dotu</i>	"	(dolor) (duelo)	Minduru (duelo)
	Lateratik?	(dolere)	Atskabe (dolor, pena)
			Min, oñaze (dolor, pena)
<i>Dorpea</i>	Españeratik	(torpe)	Baldar, aztun, kankail
<i>Dretxoa</i>	"	(derecho)	Eskubidea
<i>Duda</i>	"	(duda)	Zalantza, ezpai, enura
<i>Emendatu</i>	"	(enmendar)	Geitu (augmentar)
			Ongitu, oncratu (amender, se corrigir)
<i>Entseia, entsetatu</i>	"	(ensayo, ensayar)	Ekiñaldi, ekin, len ikusi
<i>Errebeskeri</i>	"	(revés)	Baldarkeri, baldartasun
<i>Errebista</i>	"	(revista)	Aldizkaria
<i>Errege</i>	"	(rey)	Bakaldun (itz berria?)
<i>Erregela</i>	Parantzeratik	(règle)	Arau, zuzenkai
<i>Erreptka</i>	Españeratik	(repicar)	Joalera (joalez), leloz
<i>Errespetatu</i>	Españeratik	(respetar)	Lotsa-izan, itzal-izan, lardería-izan
<i>Erretora</i>	Lateratik?	(rectorem)	Apaiz-buru
<i>Erreireta</i>	Parantzeratik	(retraite)	Zar-saria
<i>Eskandala</i>	Españeratik	(escándalo)	Gaizpidea, galbidea; arrabotsa, zalaparta
<i>Eskapatu</i>	"	(escapar)	Itzuri, iges-egin

<i>Eskas</i>	Españeratik	(escaso)	Urri
<i>Esklavo</i>	"	(esclavo)	Yopu
<i>Eskolemaile</i>	" erdia	(escuela)	Irakasle
<i>Espantagarria</i>	" erdia	(espanto)	Arrigarri, izigarri, ikaragarri
<i>Espantu</i>	"	(espanto)	Ikara, labori
<i>Esperantza</i>	"	(esperanza)	Itxaro, itxaropena
<i>Estatu</i>	"	(estado)	Egoera, bizi-bide, itxura
<i>Etsenplua</i>	"	(ejemplo)	Adibidea, ikaspidea
<i>Fagorea</i>	"	(favor)	Urgazpen, sorospen, esker
	(Lhande: Lat. favoream)		
<i>Falta</i>	Españeratik	(falta)	Utz, ogen (pecado), akats
<i>Fama</i>	"	(fama)	Omena, aomena
<i>Fedea</i>	"	(fe)	Sinismena
<i>Finala</i>	"	(final)	Amaya, azkena
<i>Finkatu</i>	"	(finar, hincar)	Tinkotu
<i>Fraide</i>	"	(fraile)	Lekaide (itz berria)
<i>Frango, franko</i>	"	(franco)	Asko, anitz, ainitz, oparotsu
<i>Froga</i>	"	(prueba)	Argibide, agerbide
<i>Fruitua</i>	"	(fruto)	Arnari, emaitza, zitu
<i>Gerla</i>	"	(guerra)	Guda
<i>Gende</i>	"	(gente)	Ozte, lagun-ozte, gizatalde
<i>Gidari</i>	"	(guía)	Erakuslea, aitzindaria
<i>Girixtiño</i>	"	(cristiano)	Kistarra, kistotarra
<i>Gloria (latera?)</i>	"	(gloria)	Aintza
<i>Gostatu</i>	"	(costar)	Jasoko-izan
<i>Grado</i>	"	(grado)	Mail, ozka, kozka
<i>Grazia</i>	"	(gracia)	Esker
<i>Greba</i>	Parantzeratik	(grève)	Opomaldia, lan-uzte
<i>Guarda</i>	Españeratik	(guarda)	Begirale, zaintzale
<i>Gustagarria</i>	"	(gustoso)	Gozagarria, atsegingarria
<i>Idela</i>	"	(idea)	Asmoa, burutapena
<i>Irrisku</i>	"	(riesgo)	Galtzori, gaitzurre
<i>Iskiritatu</i>	"	(escribir)	Idatzi (itz berri ederra)
<i>Ispiritu</i>	"	(espíritu)	Gogo
<i>Ixtorio</i>	"	(historia)	Ipuin
<i>Estudiatu</i>	"	(estudiar)	Ikasi (aditaldu, itz berria?)
<i>Jestu</i>	"	(gesto)	Ayeru
<i>Jujatu</i>	Parantzeratik	(jugar)	Epaitu
<i>Kanpo</i>	Españeratik	(campo)	Lekore, landa, at
<i>Kantu, kantatu</i>	"	(canto) (cantar)	Abesti, abestu
<i>Karitate</i>	"	(caridad)	Goimaitasuna
<i>Karro</i>	"	(carro)	Gurdi, orga
<i>Kasik</i>	"	(casi)	la, -tsu
<i>Kasu</i>	Españeratik	(caso)	Adil, emait, zain!
	(Lhande: lat. casum)		
<i>Katxima</i>	Españeratik	(catecismo)	Kristau-ikasbidea
<i>Kofesto</i>	"	(confesión)	Aitortza

<i>Kolore</i>	Españeratik	(color)	Margo
<i>Kolpatu</i>	"	(golpear)	Jokatu, ebaindu
<i>Komedia</i>	"	(comedia)	Antzerki (itz berria; Euskaltzain- di'ak ontzat artua)
<i>Komentu</i>	"	(convento)	Lekaidetxe, lekaimetxe, lekaretxe (itz berriak?)
<i>Komunione</i>	"	(comuni6n)	Jaunartze
<i>Kondatu</i>	"	(contar)	Zenbatu, bat-banatu
<i>Konferantza</i>	Parantzeratik?	(conférence)	Itzaldia, mintzaldia
<i>Konprenttu</i>	Españeratik	(comprender)	Ulertu
<i>Kontra</i>	"	(contra)	Aurka, aurrez, kaltez, aitz
<i>Kontseillu</i>	Parantzeratik?	(conseil)	Aolku, onu
<i>Kontsekratu</i>	Españeratik	(consagrar)	Oteundu (itz berria?)
<i>Korala</i>	"	(coral)	Abesbatza, abesalde
<i>Kultura</i>	"	(cultura)	Gogo-lantze (itz berria?)
<i>Kuraia</i>	Parantzeratik	(courage)	Kemena, adorea
<i>Kurisoa</i>	Parantzeratik?	(cours)	Ikastaroa, ikastaldia
<i>Libertitu</i>	Españeratik	(divertir)	Jostatu
<i>Libro</i>	Parantzeratik?	(libre)	Azke, bereber
	Españeratik?	(libre)	
<i>Liferentzia</i>	"	(diferencia)	Bereztasuna, aldea, artea
<i>Literatura</i>	"	(literatura)	Elerti (itz berria, ongi egiña)
<i>Manatu</i>	"	(mandar)	Agindu
<i>Martxo</i>	"	(marzo)	Epail
<i>Marzanta</i>	Parantzeratik	(marchand)	Salerosle
<i>Mayatza</i>	Españeratik	(mayo)	Orril, lorail
<i>Mediku</i>	"	(médico)	Sendagille, osagille
<i>Mentura, menturaz</i>	"	(ventura)	Bearbada, apika, ausaz
		(por ventura)	
<i>Mereximendu</i>	"	(merecimiento)	Irabaztea, sarigai
<i>Merkatu</i>	"	(mercado)	Zei, sal-toki
<i>Moda</i>	"	(moda)	Oidura, azkuntza
<i>Molde, moldatu</i>	"	(molde, moldear)	Arau, era; eratu, eraratu
<i>Mundu</i>	"	(mundo)	Ludi, izadi, gizadi
<i>Muntatu</i>	"	(montar)	Antolatu, atundu, lonu
<i>Ofiziala</i>	"	(oficial)	Mutil nagusia, aginbidezko
<i>Parte bartu</i>	"	(tomar parte)	Kide izan, arte izan, arukizuna izan
<i>Partida</i>	"	(partida)	Jokaldia
<i>Partikularzki</i>	"	(particularmente)	Batez ere, batik bat
<i>Parean</i>	"	(a la par)	Batera, buruz-buru
<i>Parroquia</i>	"	(parroquia)	Eliza nagusia
	(Lhande: Bearn. <i>parropi</i>)		
<i>Pasatu</i>	Españeratik	(pasar)	Igaro, igaran
<i>Pekatu</i>	"	(pecado)	Ogen
<i>Penisatu</i>	"	(pensar)	Oldoztu, gogoan izan

IPARRALDEKO EIDERAKADAK

<i>Pentsone</i>	Españeratik Parantzeratik?	(pensión) (pension)	Ikastaria, zartaria
<i>Pezeta</i>	Españeratik	(peseta)	Laurjeko (lau errealeko = de 4 reales)
<i>Pizu</i>	"	(piso)	Azta
<i>Plaza</i>	"	(plaza)	Enparantza
<i>Pobreá, pobreza</i>	"	(pobre, pobreza)	Txiro, lander; txirotasuna, landertasuna
<i>Poliza</i>	Parantzeratik	(polic)	Ertzain, ertzaina, urizain
<i>Populu</i>	Lateratik	(populus)	Erri
<i>Pottbario</i>	"	(boticario)	Sendakagillea, osakailaria
<i>Prest</i>	"	(presto)	Geru (Lhande: lat. certum), erne, ernai
<i>Prestatua</i>	"	(prestado)	Maillegatua (mailleguz eman) (mailleguz artu)
<i>Presuna</i>	"	(persona)	Notin, gizaki
<i>Primadera</i>	"	(primavera)	Udaberri, udaste, bedats
<i>Protesta</i>	"	(protesta)	Ostetasun, osterá
<i>Puntu, pondu</i>	"	(punto)	Tilet, kultz (.) (its berria?) Josketa (josi'tik) Auzi, arlo, gai
<i>Punitu</i>	Parantzeratik	(punir)	Zigortu, astindu
<i>Punta</i>	Españeratik	(punta)	Mutur, mustur
<i>Radtoa</i>	Parantzeratik? Españeratik?	(radio)	Irratia (itz berria)
<i>Saindu</i>	"	(santo)	Done, guren
<i>Sakristia</i>	"	(sacristía)	Eliztola, eliz-gela
<i>Saibata</i>	Parantzeratik? Españeratik	(sacristie)	Basati
<i>Saibatu,</i> <i>saibatzailea</i>	"	(salvar, salvador)	Gaizkatu, onik atera; gaizkatzailea
<i>Salbu</i>	"	(salvo)	Lekat, landa, landara
<i>Salsero</i>	"	(salsero)	Naaskari, naaskatzaile, bakter-nasle
<i>Sano</i>	"	(sano)	Zindo; osasuntsu, osasundun
<i>Santifikatu</i>	"	(santificar)	Donetu, gurendu
<i>Segetetu</i>	"	(secreto)	Aopeko, izkutu
<i>Segetario</i>	"	(secretario)	Idazkari, zadoriari
<i>Segi, segida, segitu</i>	"	(seguir)	Jarrai, jarraitzea
<i>Segur</i>	"	(seguro)	Eskier
<i>Sentimendu</i>	"	(sentimiento)	Biozkada, biozmin
<i>Serora</i>	Parantzeratik	(soeur)	Lekaima (itz berria)
<i>Sistema</i>	Españeratik	(sistema)	Eraketa
<i>Sujeta</i>	"	(sujero)	Gai
<i>Taula</i>	"	(tabla)	O!
<i>Teatro</i>	"	(teatro)	Antzoki (itz berria, Euskaltzaindi'ak ontzat artua)
<i>Tenore</i>	"	(tenor)	Ordu, oren

<i>Tratularia (trau)</i>	Españeratik	(trato)	Erabiltzale, sal-erostun
<i>Tribunal</i>	"	(tribunal)	Auzitegi, epaitegia
<i>Trufatu</i>	Lhande: (rom. <i>trufa</i>)		Isekatu, nausa-egin
<i>Urgulu</i>	Españeratik	(orgullo)	Arrokeri, andikeri, antuste
<i>Usaia</i>	Parantzeratik	(usage)	Oitura, ekandu, erabilketa
<i>Xarmanta</i>	"	(charmant)	Zoragarria, zorarazlea
<i>Zerbitzu</i>	"	(service)	Morrintza
<i>Zigante</i>	Españeratik?	(servicio)	
	"	(gigante)	Erraldoi, zentoi

Urtubia
(Antonio Karmelo Urreztarazu)